

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEZAKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2021eko ordainagiriak jendaurrean jarri eta kobratzea

Lezako trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga 2021ean ordaindu behar dutenen errolda behin-behineko onartu ondoren, espedientea hamabost egun baliodunez egongo da jendaurrean, udal idazkaritzan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, aztertu eta egoki irizitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat emango da.

Borondatezko aldiko dirubilketa apirilaren 1etik maiatzaren 31ra izango da, egun biak barne. Ordainketa inongo banketxe edo aurrezki kutxatan helbideratu ez duten zergapekoek udal bulegoetan ordaindu beharko dute, borondatezko aldia.

Bankuetan helbideratutako ordainketak: udalak izapidetuko ditu.

Borondatezko aldia amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko betearazte bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekarguak, eta, hala badagokio, berandutze korrituak eta kostuak sortuko dituzte.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Leza, 2021eko otsailaren 17a

Alkatea

JOSÉ ANTONIO SUSO PÉREZ DE ARENAZA